

# ZINELEKU 2018

UZTAILAREN 23TIK ABUZTUAREN 3RA

## GASTEIZ

IZEN-EMATEAK ZABALIK

### Zer da ZINELEKU?

ZINELEKU ikus-entzunezkoen formakuntza, ekoizpena eta emanaldiak ardatz dituen programa da. Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuaren laguntzarekin, Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak antolatu eta KalakaLab-ek Euskal Herrian gorpuzten duen egitasmoa.

Ikus-entzunezkoen sortzaile berriei diziplinarteko formakuntza eskaintzea du helburu, ikuspuntu komunitario batetik abiatuta, betiere. Murgiltze proiektu hau Gasteizko hirigune zaharrean gauzatzen da, elkarrekintza eta hartu-emana sustatzen duen espazio batean. Formakuntza eta sorkuntza esperientzia bat partekatzeko aukera paregabea.

Parte-hartzaileak Gasteizko (Araba) Santa Maria aterpetxean biziko dira elkarrekin, hamabi egunez, 2018ko uztailaren 23tik abuztuaren 3ra. Bitarte horretan zinema lantergi eta zinemagintzako edota beste arte batzuetako profesionalen eskola magistraletara joango dira, eta proiektzio, performance eta kontzertuetan parte hartu ahal izango dute.



# PROGRAMAREN EDUKIAK

---

ZINELEKUK aukera zinematografikoen ikuspegi zabala eskainiko du. Aurtengo programan soinu lanketari (esperimentaziotik hasita, postprodukzio profesionaleraino) eta Super 8mm-ko filmaketa eta errebelatuari erreparatuko zaio, besteak beste.

Lantegietan honako hauek landuko dira:

- Soinu esperimentazioa.
- Zuzeneko soinuaren grabaketa eta soinuaren postprodukzioa.
- Film baten sortze prozesua: ideiatik zinema gidoirako bidea.
- Super 8 mm-ko filmaketa eta errebelatua.
- Kuradoretza eta programazioa zinemaldietan.
- Argiaren garrantzia: zinemarako argazkigintza.

## Hauek izango dira, besteak beste, irakasle gonbidatuak eta jorratuko diren gaiak:

- **Sra Polaroiska.** *Performancea eta esplorazio filmikoa.*
- **Paul Urkijo.** *Proiektuen garapena.*
- **Marian Fernández.** *Proiektuen garapena.*
- **Ana Pfaff.** *Proiektuen garapena.*
- **Mar Coll.** *Proiektuen garapenerako aholkularitza. / Zine zuzendaritza.*
- **Xabier Erkizia eta Luca Rullo.** *Soinu esplorazioa*
- **Martín Guridi.** *Soinuaren postprodukzioa.*
- **Mursego.** *Musika esperimentazioa eta soinu banda.*
- **Clara Sánchez Dehesa.** *Super 8mm-ko errebelatua eta proiektzioa.*
- **Garbiñe Ortega.** *Programazioa eta zinemagintzako komisariotza.*
- **Carlos Casas.** *Proiektuen gauzatzea.*
- **Idoia Zabaleta.** *Begiradaren mugimendua eta eraikuntza.*
- **Zazpi T'ardi.** *Dagoenarekin ekoizten. / Esplorazio Filmikoa.*



## Halaber, aurten, ZINELEKUK bi praktika mota eskainiko ditu:

- 1. praktika.**- Film labur baten proiektua ekoiztu eta errealizatzea.
- 2. praktika.**- Proiektuen garapena: nola amaitu zure gidoia, nola aurkeztu zure proiektua ekoiztu ahal izateko, nola bilatu finantzaketa, nola egin *pitching* bat (zure filmaren ideia proiektua aurkeztea balizko ekoizleei).

Parte-hartzaileak zein praktika egin nahi duen zehaztu beharko du izena emateko orrian. Parte-hartzaileen kopurua mugatua da praktika bakoitzean.

Jardunaldi bakoitza amaitzean, edonorentzat irekiak dauden hainbat jardue-  
ra izango dira, besteak beste, zinema eta literatura, zinema dokumentala edo  
interpretazioaren inguruko hitzaldiak, eta orobat proiektzioak, performan-  
ceak eta kontzertuak.

# PARTE-HARTZAILEEN PROFILA ETA INFORMAZIO PRAKTIKOA

- ZINELEKU 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua dago; Euskal Autonomia Erkidego, Nafarroa edo Iparraldekoak izan behar dute, eta zineman eta ikus-entzuzko arteetan interesa izan.
- Parte-hartzaileek euskara menperatu beharko dute, programa hizkuntza honetan gauzatuko baita.
- Parte-hartzaileek konpromisoa hartuko dute Gasteizen egoteko 2018ko uztailaren 23tik abuztuaren 3ra. Ostatua, Santa Maria Katedraleko aterpetxea izango da.
- Parte-hartzaileek motibazio gutun labur bat bidali beharko dute inprimakiarekin batera, proiektuan parte hartzeko arrazoiak azalduz.
- Izena emateko orrian, parte-hartzaile bakoitzak bietako zein praktika egin nahi duen zehaztu beharko du.
- Leku baino izen-emate gehiago izanez gero, profesionalek ezberdinez osatutako batzorde batek hautatuko ditu parte-hartzaileak. Haren erabakiaren kontra ezingo da jo. Arabar erakundeek diruz lagundutako proiektua izaki, Arabako parte-hartzaileei emango zaie lehentasuna, parte hartzeko lekuen %70a haien zat gordez. Leku horiek bete ezean, gainerako lurraldeetako pertsoneri eskainiko zaizkie.
- ZINELEKUn parte hartu izana egiaztatzen duen agiri bana jasoko dute partaideek.

## IZEN-EMATEAK

Izena emateko pausoak:

- 1- Partaidetza inprimakia bete. Dokumentu hau Arabako Gazteriaren Foru Erakundearen web orrian edo zineleku.org helbidean eskuragarri dago. Halaber [koord.kalakalab@gmail.com](mailto:koord.kalakalab@gmail.com) helbidera idatzita eskatu daiteke.
  - 2- Inprimakia, motibazio gutun batekin batera, [koord.kalakalab@gmail.com](mailto:koord.kalakalab@gmail.com) helbidera bidali.
- Izena emateko epea **2018ko apirilaren 12tik ekainaren 8ra** izango da. Parte hartzaile onartuen izenak lehen aipaturako web orri horietan jakinaraziko dira ekainaren 11tik aurrera. Ordutik aurrera izango da lekuak behin betiko esleitzen hasteko uena.
  - Izena eman ondoren, eta lekua formalizatzeko, euren izenean dagoen ordainagiria eta mediku fitxa beteta eskatuko zaie parte hartzaileei.
  - Izen-ematearen prezioa **350€**koa da.
  - Lekuen %3a gordeta dago dibertsitate funtzionala edo hezkuntza beharizan bereziak dituzten pertsonentzat.

### Argibide gehiago

[www.zineleku.org](http://www.zineleku.org)

[koord.kalakalab@gmail.com](mailto:koord.kalakalab@gmail.com)

[www.araba.eus/gazteria](http://www.araba.eus/gazteria)

[www.vitoria-gasteiz.org/juventud](http://www.vitoria-gasteiz.org/juventud)



ZINELEKU  
2018 